

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

LEGAZPIKO UDALA

Iragarkia

Legazpiko Udal Korporazioaren Osoko Bilkurak, joan den 2016-03-22an egin zuen ohiko bileran, hasierako onspena eman zion Legazpiko udalerriko bide publikoan terrazak jartzea arautzen duen Ordenantzari.

Jendeaurreko informazio-epea amaiturik eta alegazioak aurkeztu ez direla ikusi ondoren, aipatu Ordenantzaren aldaketa behin betiko onspena jaso duela ulertzen da, beraz argitaratzen da.

Legazpin, 2016ko maiatzaren 16a.—Alkatea. (3533)

UDAL ORDENANTZA, LEGAZPIKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKOAN TERRAZAK JARTZEA ARAUTZEN DUENA

ZIOEN AZALPENA

Legazpiko udalerrian hazi egin da azken urteotan kalean ezarri diren terrazan kopurua eta, beraz, herritarrek aisiarako gehien eskatzen duten aukeretako bat bihurtu dira.

Nabarmendu behar dugu bide publikoan terrazak jartzeko eskaerak, tabakoaren kontsumoari buruzko 42/2010 Legea betetzeko ostalaritzan hartu behar izan diren neurrien aurrean herritarrek hartu dituzten bestelako ohiturekin bat etorri direla.

Horren aurrean, horrelako instalazioetako titularrei euren jarduera garatzeko arau-marko bat eskaini beharra ikusi da, ostalariei gertaeren erritmora egokitutako erantzuna ematea ahalbidetuko diona.

Xedapen hau ondoren balioetan eta irizpideetan oinarritzen da:

Erabilera komun orokorraren lehentasuna, oinezkoen igarotzeari arreta berezia jarriz eta herritarrei erabilera publikoko eremuetara arintasunez, erosotasunez eta segurtasunez sartzeko irigarritasuna murriztuko ez zaiela bermatuz.

Zuhaitz, parterre, hiri-paisaiako landaredi eta hiri-altzarien zainza eta babesa.

Zerbitzu publikoen, eta bereziki larrialdietakoen, funtzionamendu egokiaren bermea.

Pertsonen ingurumen osasungarria izateko duten eskubidearen babesa.

Modu berean, horrelako instalazioak eskatzen dituztenei erantzun argiagoa eman nahi izan zaie, haiek jartzeko eta haien erabilera egokirako burutu beharreko izapideak sinplifikatuz.

Horrekin batera hainbat bizilagunen aisiarako eskubidea, jarduera ekonomikoaren garapena eta inguruko bizilagunek atseden hartzeko duten eskubidea uztartu nahi izan dira.

Ordenantza honekin hiru sasoi desberdin arautzea komeni dela ikusi da: udako terrazak, negukoak eta urte osokoak.

Ordenantza honetan garrantzi berezia ematen zaie onartuko diren instalazio eta altzarien estetikari eta, beraz, ezarriko diren terrazan estetika bat etorriko da haiek kokatuta dauden kale eta plazetako estetikarekin.

AYUNTAMIENTO DE LEGAZPI

Anuncio

El Pleno del Ayuntamiento de Legazpi en sesión ordinaria celebrada el día 22-03-2016 aprobó con carácter inicial la Ordenanza municipal reguladora de la instalación de terrazas en la vía pública del municipio de Legazpi.

Transcurrido el plazo de información pública sin que se hayan presentado alegaciones, la citada Ordenanza se entiende aprobada definitivamente por lo que se procede a su publicación.

Legazpi, a 16 de mayo de 2016.—La alcaldesa. (3533)

ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LA INSTALACIÓN DE TERRAZAS EN LA VÍA PÚBLICA DEL MUNICIPIO DE LEGAZPI

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El fenómeno de las terrazas ha experimentado en los últimos años un gran desarrollo en el ámbito del municipio de Legazpi, por lo que se ha constituido en una de las alternativas de ocio más demandadas por los ciudadanos.

Resaltar que las solicitudes para instalar terrazas en la vía pública, han ido en consonancia con el cambio de hábito de los ciudadanos ante las medidas en el consumo del tabaco que el cumplimiento de la Ley 42/2010 conlleva en el ámbito de la hostelería.

Ante esta realidad, se ha planteado la necesidad de ofrecer a los titulares de este tipo de instalaciones un marco normativo de desarrollo de su actividad que permita dar una respuesta más adaptada al ritmo de los acontecimientos.

Los valores y criterios en los que se fundamenta esta disposición, son:

La preferencia del uso común general, con especial atención al tránsito peatonal, debiendo garantizarse que no se merme la accesibilidad de la ciudadanía a los espacios destinados a uso público, en condiciones de fluidez, comodidad y seguridad.

Preservación del arbolado, parterres, vegetación del paisaje urbano y de los elementos del mobiliario urbano.

Garantía del funcionamiento de los servicios públicos, en especial los de emergencia.

La protección del derecho de las personas a un medio ambiente saludable.

Asimismo, se ha querido dar una respuesta más clara a los solicitantes de estas instalaciones a través de su simplificación de los trámites necesarios para hacer posible la instalación y funcionamiento de las mismas.

Al tiempo que se pretende conciliar el derecho al ocio de algunos vecinos, el desarrollo de una actividad económica y el derecho al descanso de los vecinos del entorno.

A través de esta Ordenanza, se ha considerado conveniente regular tres tipos de temporadas, de instalación de terrazas verano, invierno y anual.

En esta regulación se da importancia a la estética del mobiliario y de las instalaciones a autorizar, que deberán estar en consonancia con la de las calles y plazas donde se instalen.

Udalak aldian-aldian terraza guztiak ikuskatuko ditu, ordenantza honetako artikuluetan jasotakoa behar bezala betetzen dela ziurtatzeko eta, batik bat, arreta berezia jarriko da herritarrengan zuzenean eragiten duten alderdietan, hala nola, herritarren eta, batez ere, ezindu fisikoen zirkulaziorako igarobidea, inguruko etxebizitzetara iristen den zarata, erabilitako lekuen garbiketa, ixteko ordutegia... eta abar.

Ordenantzak Jarraipen batzorde bat osatzea aurreikusten du. Batzorde horretan Udalak eta ostalaritzako elkarteek hartuko dute parte. Herriaren elkarbizitzarako hain garrantzitsua den alderdi batean eragingo duen Ordenantzak elkarriketa bultzatuko duen organo bat izan behar duela uste dugu. Elkarriketa horrek terrazak guztion gozamenarako lekuak izatea eta inorentzako traba eta eragozpen ez izatea ahalbidetu eta lortu behar du.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea.

1. Hauxe da Ordenantza honen xedea: irekitze-baimena eta jarduera-baimena duten publikora irekitako eta artikulua honen 3. puntuan zehaztutako establezimenduetako titularrek terrazak eta mahaiak jarri erabiliko duten bide publikoaren erabilera arautzea.

2. Bide publikoaren okupazio eta aprobetxamendu horiek erabilera komun bereziaren maila juridikoa dute eta, beraz, ezinbestekoa da horretarako dagokion udal baimena alde aurretik eskuratzea. Aipatu lizentzia Ordenantza honetan aurreikusitakoaren arabera emango da, kokapenarengatik beste baimen batzuk behar izango direnaren kalterik gabe.

3. Aurreko atalean zehaztutako ondorioetarako, terrazat eta mahaitzat jotzen dira ostalaritza legezko jardueretan, hala nola, taberna, kafetegia, jatetxea, taberna-jatetxea, kafetaberna, eta antzeko establezimenduetan dagokion jarduera garatzeko ezartzen diren mahaiak eta aukiak, eta bestelako instalazio osagarriak, hala nola, itzalkinak, bereizgailuak, landare-ontziak eta bestelako altzari mugikor eta desmuntagarriak.

4. Ezingo dira aurreko lerraldian zehaztu ez diren elementuak jarri.

5. Terraza eta mahaietan establezimendu nagusian garatzen den jarduera bera garatuko da eta produktu berak zerbitzatu dira.

2. artikulua. Eremua.

1. Ordenantza hau erabilera publikoko espazio guztietan aplikatuko da (kale, plaza, espazio libre eta abarretan), horien titularitatea dena dela. Espazio bat erabilera publikokoa den zehazteko, egitatezko egoera zein indarrean dagoen antolamendua hartuko dira aintzat.

3. artikulua. Aurretiazko eskubiderik eza.

Jabari publikoko ondasunen izaera besterenezin eta preskribaezinaren indarrez, okupazioa baimendu ahal izateko beharrezko baldintzak betetze hutsak ez du lizentzia lortzeko inolako eskubiderik ematen. Udalak, egiazko zertzelada guztiak eta aurreikusten direnak kontuan hartuta, erabateko ahalmena izango du lizentzia eman edo ukatzeko, betiere interes orokorra jarri interes partikularren aurretik.

4. artikulua. Erantzukizun zibileko aseguruia.

Establezimenduaren titularrak eduki beharko duen erantzukizun zibileko eta sutearen kontrako aseguruaren polizak estali egin beharko ditu halaber, terraza eta mahaiaren funtzionamendutik ondoriozta daitezkeen izaera bereko arriskuak.

Desde el Ayuntamiento se inspeccionarán periódicamente todas las terrazas para hacer cumplir todos los artículos de esta ordenanza haciendo especial hincapié en aquellos que afectan fundamentalmente a los ciudadanos como pueden ser el correspondiente paso para la circulación de los ciudadanos y especialmente los disminuidos físicos, el ruido que llega a las viviendas del entorno, la limpieza de los lugares ocupados, el horario de cierre, etc.

La Ordenanza crea una Comisión de Seguimiento entre el Ayuntamiento y las Asociaciones del sector hostelero para todo lo referente a las terrazas. Creemos que una Ordenanza que pretende incidir en un aspecto tan importante de la convivencia de la ciudad tiene que estar dotada de un órgano en el que se practique el diálogo, diálogo que debe llevarnos a conseguir que las terrazas sean ese lugar de disfrute para todos sin que sirvan de molestia para nadie.

CAPÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Objeto.

1. Es objeto de la presente Ordenanza la regulación de las ocupaciones y usos de la vía pública mediante la colocación de terrazas y veladores instalados por los titulares de establecimientos abiertos al público de los señalados en el apartado 3.º de este artículo.

2. Las citadas ocupaciones y aprovechamientos de la vía pública tienen la categoría jurídica de uso común especial y requieren para su ejercicio en cada caso, licencia previa municipal que se concederá de acuerdo con lo previsto en la presente Ordenanza sin perjuicio de que por su ubicación sean precisas otras autorizaciones.

3. A los efectos del apartado anterior, se entiende por terrazas y veladores el conjunto de las mesas y sillas, y de sus instalaciones auxiliares, tales como sombrillas, separadores, jardineras, y otros elementos de mobiliario de carácter móvil y desmontable, que desarrollan su actividad de forma aneja o accesoria a un establecimiento principal de bar, cafetería, restaurante, bar-restaurante, café-bar, taberna, coissantería y otros establecimientos similares.

4. Queda prohibida la instalación de elementos distintos de los señalados en el párrafo anterior.

5. Las terrazas y veladores sólo podrán realizar la misma actividad y expender los mismos productos que el establecimiento del que dependen.

Artículo 2. Ámbito.

1. La presente Ordenanza es aplicable a todos los espacios (calles, plazas, espacios libres, etc.) de uso público, con independencia de su titularidad. La condición de uso público vendrá determinada tanto por la situación de hecho, como por el planeamiento vigente.

Artículo 3. Carencia de derecho preexistente.

En virtud de la naturaleza inalienable e imprescriptible de los bienes de dominio público, la mera concurrencia de los requisitos necesarios para que la ocupación pueda ser autorizada no otorga derecho alguno a la obtención de la licencia. El Ayuntamiento, considerando todas las circunstancias reales o previsibles, tendrá la plena potestad para conceder o denegar la licencia, haciendo prevalecer el interés general sobre el particular.

Artículo 4. Seguro de responsabilidad civil.

La póliza de seguro de responsabilidad civil e incendios de que deba disponer el titular del establecimiento deberá extender su cobertura a los posibles riesgos de igual naturaleza que pudieran derivarse del funcionamiento de la terraza o velador.

5. artikulua. Muga orokorrak.

Okupatzeko lizentzia ematen den azalera zehatza mugatzean, kontuan hartu beharko dira igarotzeko beharrak eta mahaiak eta aulkiak jartzeko lekua. Izan ere, uneoro libre geratu beharko du oinezkoak igarotzeko gutxieneko espazioak, eta bete egin beharko dira ondoko arau hauek:

1. Ezingo dira terrazak eta mahaiak jarri hiru metro (3 m) baino estuagoko espaloi edo oinezkoentzako espazioetan.

Dena den, aparteko kasuetan, Udalak banaka aztertuko ditu geratzen diren eta eskaeran argudiatzen diren zertzeladak, eta aparteko kasu gisa lizentzia eman ahal izango du, behar bezala arrazoituta.

Edonola ere, ezingo dira terrazak eta mahaiak jarri oinezkoen pasagune, elbarrientzako aparkaleku, ur-hartune, larrialdiko irteera, autobus eta taxien geraleku, beira, kartoi eta zabor edukiontzi eta abarren aurrean.

2. Modu berean ezingo dira terrazak eta mahaiak jarri bide segurtasuneko arrazoiak, obra publikoak edo, Udalaren iritziz, interes publikokoak diren antzeko zertzeladak tartean direnean.

3. Instalazioaren luzerako garapena, gehienez ere, eta Udalak onartutako albo babesak ere kontuan harturik, bat etorriko da establezimenduaren fatxadaren garapenarekin; eta okupa daitekeen zeharkako garapenaren kasuan, erabilera publikoko espazioaren berezitasunak hartu beharko dira kontuan, espazio horren jatorrizko eginkizuna bermatuta utziz betiere.

4. Fatxadaren luzera 10 metro baino beherakoa bada, proiektatutako instalazioak gainditu ahal izango du jarduera nagusiaren euskarri den lokalaren fatxadaren luzera, baina mantendu egin beharko du luzerako garapenaren jarraipena eta, gutxienez, fatxadatik 3 metro aldentuko da. Kasu horretan, luzerako gehienezko garapena 10 metrokoa izango da.

Eskatzaileak, ezinbestean frogatu beharko du aurrealdea hartuko zaien beste lokal edo establezimenduen titularren adostasuna.

5. Proiektatutako instalazioaren okupazioa lokalaren fatxada-frontea baino txikiagoko neurri batera mugatu ahal izango da, fatxada horretatik hurbil atariak, larrialdiko irteerak eta abar daudenean. Terraza osatzen duten elementuak, hots, mahaiak, aulkiak, itzalkinak, iragarki-taula, landare-ontziak... aldameneko finketarako sarrera librearekin batera ez oztopatzeko moduan jarriko dira, metro bateko (1 m) tartea utziz.

6. Terrazetan ezingo da ez arranparrilarik ez barbakoarrik instalatu.

II. KAPITULUA

INSTALAZIO BALDINTZAK

6. artikulua. Instalazioak ibilgailu-zirkulazioa duten kaleetako espaloietan.

1. Terrazak jartzeko baimena emateko, baldintza hauek bete beharko dira:

a. Oinezkoentzat, gutxienez, 2 metroko zabalera utziko da libre. Metro horiek fatxadatik neurtuko dira. Salbuespen gisa kasu bereziak onartu ahal izango dira, oinezkoen igarobidea ez denean.

b. Mahai eta aulkiak hartzen duten espaloi-zatiaren gehienezko zabalera ez du inola ere gaindituko espaloi osoaren erdia baino gehiago, espaloien zabalera 4 metrotik gorakoa denean izan ezik. Kasu horretan, espaloian gutxienez 2 metroko

Artículo 5. Limitaciones generales.

Al delimitarse la superficie concreta a ocupar para la que se conceda licencia, deberán tenerse en cuenta las necesidades de tránsito y el lugar donde se coloquen las mesas y sillas, debiendo en todo momento realizarse de modo que quede libre el espacio mínimo para el paso de los peatones, de acuerdo con las siguientes reglas:

1. Queda prohibida la instalación de terrazas y veladores en aceras o espacios peatonales que tengan una anchura inferior a tres metros (3 m).

No obstante, en casos excepcionales, el Ayuntamiento estudiará de forma individual las circunstancias que concurren y se argumenten en la solicitud, pudiendo de forma extraordinaria y motivada conceder la oportuna licencia.

En todo caso, queda prohibida la instalación de terrazas y veladores, frente a pasos de peatones, plazas de aparcamiento para minusválidos, hidrantes, salidas de emergencia, paradas de autobús y de taxis, contenedores de vidrio, cartón, basuras, etc.

2. Podrá asimismo prohibirse la instalación de terrazas y veladores por razones de seguridad viaria, obras públicas u otras circunstancias similares, que a criterio del Ayuntamiento, sean de interés público.

3. El desarrollo longitudinal máximo de la instalación, incluidas las protecciones laterales aceptadas por el Ayuntamiento, será acorde al desarrollo de la fachada del establecimiento, y el desarrollo transversal susceptible de ocupación se efectuará en función de las peculiaridades del espacio de uso público, garantizando la función original del mismo.

4. En el supuesto de que la longitud de la fachada sea inferior a 10 metros, la instalación proyectada podrá rebasar la longitud de la fachada del local soporte de la actividad principal, siempre y cuando se mantenga la continuidad en el desarrollo longitudinal y deje al menos 3 mts. de separación a la fachada. En ese caso, el desarrollo longitudinal máximo será de 10 metros.

Necesariamente, el solicitante deberá acreditar la conformidad de las personas titulares de los demás locales o establecimientos a los que pretenda dar frente.

5. La ocupación de la instalación proyectada podrá ser limitada a una medida inferior a la del frente de fachada del local, en los casos de que existan portales, salidas de emergencia, etc. en las cercanías de dicha fachada. Los elementos de los cuales se compone el velador; mesas, sillas, sombrillas, tablón de anuncios, jardineras, etc., se colocarán de manera que no impidan o dificulten en ningún momento el libre acceso a las fincas colindantes, con un metro (1 m.) de separación.

6. Queda prohibida la instalación en las terrazas de parrillas y barbacoas.

CAPÍTULO II

CONDICIONES DE INSTALACIÓN

Artículo 6. Instalaciones en aceras de calles de circulación rodada.

1. Podrán autorizarse la instalación de terrazas cumpliendo las siguientes condiciones:

a. El paso mínimo, que ha de quedar libre a contar desde la fachada será de 2 metros. Excepcionalmente se podrá eximir de dicha exigencia si no se trata de una zona de paso.

b. La anchura máxima de la franja que ocupen las mesas y sillas no superará en ningún caso la mitad de la anchura de la acera, salvo si la acera tiene una anchura superior a los 4 metros. En este caso, se ha de dejar un paso libre en la acera

pasabide libre utzi behar da, jarritako hiri-altzarien elementuak horren barnean sartu gabe. Kasu berezietan oinezkoentzako pasabide libre aldatu egin ahal izango da, haien joan-etorria handia denean.

c. Instalazioaren eta okupazioaren gehieneko luzerako garapenak ez du jarduera nagusiaren establezimenduaren fatxadaren luzera gaindituko. Hala ere, Udalak mugakideei kalterik sortzen ez zaiela ulertzen badu eta eskatzaileak eskaera-ekin batera haien idatzizko baimena aurkezten badu, luzera %100 handitu ahal izango da. Ez da horretarako baimena behar izango espaloiak, fatxadatik neurtuta, 4 metroko espazio libre uztea ahalbidetzen badu; kasu horretan, distantzia horretatik aurrera okupatu ahal izango da espazio publikoa.

d. Mahai eta aulkiek ez dute inola ere galaraziko edo oztopatuko atariaren edo edozein motako eraikinen sarbidea ezta oinezkoen joan-etorriaren arintasuna ere, eta ezin izango dira jarri oinezkoen pasabideen parean edo larrialdi-irteeren parean.

7. artikulua. Albo babesak.

Terraza edo mahaien instalazioak hartzen dituen eremuak albo babesez mugatu ahal izango dira, betiere ondorengo baldintzen arabera:

a) Albo babesak mugikorrek izango dira; hala, terraza edo mahaietarako ordutegia amaitu ondoren jaso ahal izango dira. Edonola ere, inguruko baldintzetara egokituak beharko dute izan eta Udal Zerbitzu Teknikoek eman beharko dute horien egokitasunari buruzko oniritzia.

b) Albo babesez, gainera, diseinu ireki berezia izango dute. Bistarako irekiak izateak lehentasuna izango du, eta ezin dira kalea edo plaza ikusteko oztopo izan, ezta edukiontzi konpaktu baten antzekoak ere.

c) Babes horiek egonkorrek eta jarraituak izango dira, ez dute ertz bizirik edukiko, ez dira irristakorrek izango eta iraultze-kontrako erresistentzia izango dute; horien egonkortasuna lurrean ainguraketarik egin beharrik gabe bermatu beharko da.

d) Itsuek edo ikusmeneko arazoak dituzten pertsonen erraz identifikatzeko modukoak izango dira.

e) Batzuetan eta, Udal Zerbitzu teknikoek oniritzia eman gero, landare-ontziak erabili ahal izango dira albo eta aurrealdeko babes gisa.

III. KAPITULUA

INSTALAZIOAK OINEZKOENTZAKO EREMUETAN, PLAZETAN ETA ESPAZIO LIBREETAN

8. artikulua. Oinezkoentzako kaleak.

1. Terraza edo mahaiak jartzen direnean, oinezkoentzako bide bat utzi behar da, oztoporik gabe, fatxada ondoan gutxienez bi (2) metro zabalekoa. Udal administrazioak gutxienezko zabalera handiagoa exijitu ahal izango du oinezko asko ibiltzen diren kaleetan.

2. Udal Zerbitzu Teknikoen iritzia arabera, mugatu ahal izango da baimendutako mahai edo terrazen garapenaren luzera, oinezkoen joan-etorrietan eragozpenak sor daitezela saihesteko.

3. Elkarren parean dauden ostalaritzako bi establezimenduk terraza edo mahaiak instalatzeko udal lizentzia eskatzen badute, Udal Zerbitzu Teknikoak izango dira espazioaren banaketa proposatuko dutenak, betiere egoera aztertu eta beharrezko neurri guztiak ezarri ondoren.

4. Terraza eta mahaiak establezimenduaren fatxadaren ondoan jarri beharko dira, pertsonen igarotzeko behar duten espazioa oinezkoentzako espazioaren erdian egon dadin.

de al menos, 2 metros, una vez descontados los elementos de mobiliario urbano instalados. Excepcionalmente, atendiendo a la intensidad del tránsito de viandantes, el paso libre peatonal podrá ser modificado.

c. El desarrollo longitudinal máximo de la instalación y ocupación no rebasará la longitud de la fachada del establecimiento de la actividad principal, salvo que el Ayuntamiento considere que no se ocasionan perjuicios a los colindantes y cuenten con la autorización por escrito de los mismos, que se presentará junto con la solicitud, en cuyo caso se podrá ampliar en un 100%. No se precisará dicha autorización si la acera permite dejar libre un espacio de 4 metros, a contar desde la fachada y autorizar la ocupación a partir de dicha distancia.

d. Las mesas y sillas se colocarán de manera que no impidan o dificulten en ningún momento el libre acceso a portales o todo tipo de inmuebles así como la fluidez de los peatones, no pudiendo colocarse frente a pasos de cebra ni salidas de emergencia.

Artículo 7. Protecciones laterales.

Las superficies ocupadas por la instalación de terrazas o veladores podrán quedar delimitadas por protecciones laterales que acoten el recinto, de acuerdo a las siguientes condiciones:

a) Las protecciones laterales, serán móviles, de modo que se puedan retirar finalizado el horario de la terraza o velador. En todo caso, deberán ser siempre adecuadas a las condiciones del entorno y su idoneidad quedará sujeta al visto bueno de los Servicios Técnicos Municipales.

b) Las protecciones laterales presentarán además un diseño singular abierto, en el que habrá de primar la permeabilidad de vistas sin que supongan obstáculo a la percepción de la calle o plaza, ni operen a modo de contenedor compacto.

c) Estas protecciones deberán ser estables y continuas, que no tengan cantos vivos, no autodeslizantes y con resistencia al vuelco, debiéndose garantizar su estabilidad sin necesidad de realizar anclajes al suelo.

d) Serán fácilmente identificables por los invidentes o personas con deficiencias visuales.

e) Eventualmente y, con el visto bueno de los Servicios Técnicos Municipales, se podrán utilizar jardineras a modo de protección lateral y frontal.

CAPÍTULO III

INSTALACIONES EN AREAS PEATONALES, PLAZAS Y ESPACIOS LIBRES SINGULARES

Artículo 8. Calles peatonales.

1. Las terrazas o veladores estarán dispuestas de forma que dejen un itinerario peatonal libre de obstáculos, con anchura mínima de dos (2) metros junto a la fachada. La Administración Municipal podrá exigir una anchura mínima mayor en las calles de gran afluencia peatonal.

2. Queda a criterio de los Servicios Técnicos Municipales poder acotar la longitud de desarrollo del velador o terraza autorizada para evitar molestias en los desplazamientos de los peatones.

3. En el supuesto de que se dé el caso de que dos establecimientos de hostelería, ubicados uno enfrente de otro, soliciten licencia municipal para proceder a la instalación de terraza o velador, serán los Servicios Técnicos Municipales, quienes una vez analizada la situación y de acuerdo con las medidas necesarias establecidas propongan la distribución del espacio.

4. La terraza o velador deberá instalarse junto a la fachada del establecimiento, de forma que el espacio necesario para el tránsito normal de las persona discorra por el centro del espacio peatonal.

5. Aparteko arrazoiengatik terraza eta mahaiak aipatutako tokiaz bestelako batean jarri behar badira, Udalak, Udal Zerbitzu teknikoek aurrez txostena eginik, baimena eman ahal izango du instalazioa beste toki horretan jartzeko, betiere udal teknika-riek ezarritako baldintzekin bat etorri.

6. Edonola ere, 3 metroko pasabide librea utzi beharko da larrialdiko ibilgailuak, baimendutako ibilgailuak... bertatik pasa ahal daitezen.

7. Oinezkoentzako kaleetan, ibilgailuen zirkulazioa baimenduta dagoen ordutegi tartean, ezingo dira mahai eta aulkiak jarri errodadura-eremuan.

8. Irizpide guztiak kontuan izanik, establezimendu bakoitzeko gehienez ere 10 mahai eta mahai bakoitzeko 4 aulki baimenduko dira, mahai bakoitzak bere aulkiekin okupatuko duen azalera 4 metro koadrokoa izango delarik.

9. artikulua. Plazak eta eremu libre bereziak.

1. Eremu horietan terrazak jartzeko eskabideak kasu zehatz bakoitzaren berezitasunen arabera erabakiko dira, orokorrean aplikagarri izango diren muga hauek kontuan izanda:

a. Lorategi eremuak, jolas-esparruak eta atsedeneremuek errespetatuko dira. Ez da oinezkoen pasabidearen arintasuna oztopatuko.

b. Eremu horietan bide publikoa erabiltzeko lizentzia eskatu ahal izango dute establezimenduaren aurrealdeak eremu horietara ematen duten lokalen titularrek.

c. Udalak erabakiko du kasu bakoitzean erabiliko den gehieneko espazioa eta mahai eta aulkien banaketa eta kokaera; hala, kapitulu honetan araututako plazen edo eremu berezien erabilera publikoa bermatuko du.

d. Ezingo da terraza jarri pasabide gisa zehaztutako tokietan.

e. Eremu bera erabiltzeko eskabide bat baino gehiago badaude, establezimenduek hartuko duten azalera fatxadaren luzera kontutan izango da.

2. Okupazioa ezingo da izan Udalak baimendutako azalera bakoitza baino handiagoa.

10. artikulua. Erabilera publikoko arkupeak.

1. Terraza edo mahaiak jartzen direnean, oinezkoentzako bide librea utzi behar da, oztoporik gabe, gutxienez bi (2) metro zabalekoa. Udal administrazioak gutxieneko zabalera handiagoa exijitu ahal izango du oinezko asko ibiltzen diren kaleetan.

2. Instalazioaren eta okupazioaren gehieneko luzerako garapenak ez du jarduera nagusiaren establezimenduaren fatxadaren luzera gaindituko. Hala ere, Udalak mugakideei kalterik sortzen ez zaiela ulertzen badu eta eskatzaileak eskaerarekin batera haien idatzizko baimena aurkezten badu, luzera %100 handitu ahal izango da. Ez da horretarako baimena behar izango espaloiak, fatxadatik neurtuta, 4 metroko espazio librea uztea ahalbidetzen badu; kasu horretan, distantzia horretatik aurrera okupatu ahal izango da espazio publikoa.

IV. KAPITULUA

BALDINTZA TEKNIKOAK ETA PUBLIZITATEKOAK

11. artikulua. Okupazioa.

Baimendutako eremua besterik ez da erabiliko.

Establezimendu bakoitzeko gehienez baimendutako mahai kopurua, baimen daitekeen gehieneko eremuan jar daitekeena izango da. Udal zerbitzu teknikoek egingo dute banaketa hori, udaltzaingoarekin koordinatuta.

5. Si por circunstancias excepcionales fuera conveniente la instalación de la terraza o velador en un lugar distinto al indicado anteriormente el Ayuntamiento, previo informe de los Servicios Técnicos Municipales, podrá autorizar la instalación en dicho lugar, de acuerdo a las condiciones establecidas por los mismos.

6. En todo caso, se deberá dejar un paso libre mínimo de 3 m. para el tránsito de vehículos de emergencia, vehículos autorizados, etc.

7. En las calles peatonales, en el intervalo horario que esté permitida la circulación de vehículos, no se podrán instalar las mesas y sillas en la zona de rodadura.

8. Una vez tenidas en cuenta las condiciones anteriormente señaladas, se autorizarán como máximo 10 mesas y 4 sillas por mesa y establecimiento, siendo la superficie de cada mesa y sus correspondientes sillas de 4 m².

Artículo 9. Plazas y espacios libres singulares.

1. Las solicitudes para la instalación de terrazas en estos espacios se resolverán atendiendo las peculiaridades de cada caso y con sujeción a las siguientes limitaciones:

a. Se respetarán las zonas ajardinadas, zonas de juego y descanso existentes. En ningún caso se impedirá la fluidez del paso de los viandantes.

b. Podrán solicitar licencia de ocupación en estos espacios, los titulares de los locales cuyos frentes de fachada den a los mismos.

c. El ayuntamiento acordará en cada caso el espacio máximo a ocupar y la distribución y disposición de las mesas y sillas en dichas zonas para garantizar el uso público de la plaza o espacios singulares regulados en este capítulo.

d. Queda prohibida su instalación en las zonas de paso.

e. En caso de concurrencia de diversas solicitudes de ocupación en un mismo espacio, la superficie a ocupar por los distintos establecimientos será la proporcional a los metros de fachada que disponga.

2. La ocupación en ningún caso podrá sobrepasar la superficie a ocupar autorizada por el Ayuntamiento.

Artículo 10. Porches de uso público.

1. Las terrazas o veladores estarán dispuestas de forma que dejen un itinerario peatonal libre de obstáculos, con anchura mínima de dos (2) metros. La Administración Municipal podrá exigir una anchura mínima mayor en las calles de gran afluencia peatonal.

2. El desarrollo longitudinal máximo de la instalación y ocupación no rebasará la longitud de la fachada del establecimiento de la actividad principal, salvo que el Ayuntamiento considere que no se ocasionan perjuicios a los colindantes y cuenten con la autorización por escrito de los mismos, que se presentará junto con la solicitud, en cuyo caso se podrá ampliar en un 100% No se precisará dicha autorización si la acera permite dejar libre un espacio de 4 metros, a contar desde la fachada y autorizar la ocupación a partir de dicha distancia.

CAPÍTULO IV

CONDICIONES TÉCNICAS Y DE PUBLICIDAD

Artículo 11. Ocupación.

Se ocupará solamente el espacio autorizado.

El número de mesas por establecimiento como máximo autorizado, será el que resulte de la distribución en el espacio máximo autorizable. Esta distribución será realizada por los servicios técnicos municipales en coordinación con la Policía Municipal.

12. artikulua. Erabiliko den eremua garbitzea eta zaintzea.

1. Baimenaren titularrak egun osoan garbitasun eta higiene egoera egokia eduki beharko du mahai eta aulkiak okupatzen duten eremua. Horretarako, erratza pasatu eta garbiketa egin beharko du behar den guztietan.

2. Horrezaz gain, eguneko jarduna bukatzean altzari-elementuak establezimenduaren barrura sartu beharko ditu, Udalak espresuki kontrakoa onartzen ez badio; halakoetan udaltzaingoak mugatuko ditu eremu horiek. Mahaiak eta aulkiak kendu ondoren, erabilitako eremua garbitasun egoera ezin hobean utzi beharko da.

3. Debekatuta dago guztiz ainguraketa sistemak erabiltzea.

4. Baimendutako instalazioak bide publikoan okupatzen duen gunea edota hurbileko hiri-osagaietan kalteak edo akatsak eragin dituela ikusten bada, Udalak kalte horiek konponzeko dagokion diru-zenbateko osoa exijituko du.

5. Era berean, jardueraren titularrak jarduera uzten badu, bide publikoa aurreko egoeran utzi beharko du.

13. artikulua. Eguzkitakoak, itzalkinak... jartzea.

1. Bakar bakarrik, aldez aurretik eta berariaz baimendutako eguzkitakoak, itzalkinak eta olanak jarri ahal izango dira.

2. Itzalkinak: Banakakoak naiz taldekoak ezingo dira lurrera ainguratuta jarri.

14. artikulua. Apaingarriak.

